

Aretxagazeta

**TXISTULARI
TALDEA**
20 urtetik
gora lanean

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

Oskorriren kontzertua eta
Atxorrotx eguna/8

NI KAZETARI

Lore D.de Gereñuk
Joseba Gabilondori/9

LEINTZ GATZAGA

Gatzagatar ugari
Atxorrotxen /10

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Instituitua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaizntza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 11
FRAILE, J. Herriko plaza 10. . . . 943 79 21 99
DOMEKA, 12
FRAILE, J. Herriko plaza 10. . . . 943 79 85 83

OHARRAK

LOURDESERA ERROMESALDIA
Aretxabaletako parrokiak Lourdesera erromesaldian joateko autobusak antolatu ditu. Bidaia bat 25ean joan eta 26an bueltatzeko antolatu dute. Beste bat, berriz, 25ean izango da, egun berean bueltatzeko. Autobusak betetzeko jendea behar da. Animatuz gero, jo, lehenbailehen, parrokoarengana izena ematera.

LORAMENDIK ANTOLATUTAKO HURRENGO EKITALDIAK
Gaur, egubakoitza, Kirmen Uribe *Bitartean heldu eskutik* izeneko errezitaldia egingo du, gaueko hamar eta erdietan, udaletxe zaharrea. Eta datorren egunean, hilaren 16an, Goizon Garatek *Euskal Atsotitzak* hitzaldia egingo du.

ORAIN DELA 7 URTE ARETXABALETAN

‘Gorriña’-ren marka hobetzeko lehen saioa


Pedro Aranbarri *Gorriña*-k 1931n Aretxabaletatik Aizkorriaraino bidea zazpi ordu baino gutxiagoan egin zuen. 1995ean, *Gorriña*-k lortutako marka hobetzeko desafioa bota zuen norbaitek, eta, horrela, 1995eko maiatzaren 11n, Gorriñaren I. Memoriala antolatu zuten Aretxabaletan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Kaskailua”


Handia eta ergel samarra.
-Ermentarixan kriauakin ein juan burrukan: aundi kaskailu bat.



LIBURUTEGIKOTXOKOA

‘Hitz ibiltariak’

Hitz ibiltariak ipuin liburua da. Ipuin laburak eta tradizionalen itxura dutenak. Liburuan, deabruak, heriotza, animaliak eta beste elementu asko agertzen dira fantasiarekin nahastuta. Nolabait amerikar indigenen Txalaparta, 2000 kultura eta geroago iritsi zaienaren nahasketa ageri da, nahasketa horren ondorioz sortzen den kultura berezi baten adierazgarri. Ipuinen ondoren ipuinaren gogoeta modukoak ere jartzen ditu. Ipuinok Jose Francisco Borgezen grabatu ederrekin lagunduta datoz. Liburua jatorrizko hizkuntzan irakurtzea izaten da aproposena, baina Gerardo Markuletak egin duen itzulpena egokia da.



HITZ IBILTARIAK

Eduardo Galeano

Txalaparta, 2000

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA


ZORIONAGURRAK




ARETXABALETA
Garazi Berrizbeitia
5ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Andi Cáceres
7an. Zorionak, gurasoen, anaiaren, Leireren eta Gorkaren partetik.



ARETXABALETA
Felix Arrese
9an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Antonio Altube
10ean. Zorionak eta muxu handi bat, alaba, seme eta bi iloben partetik.



ARETXABALETA
Naiara Urrutia
10ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Andoni Romero
11n. Zorionak eta muxu handi bat, anaiaren eta amaren partetik.



ARETXABALETA
Ana Azkoaga
12an. Zorionak eta urte askotarako, Inman partetik.



ESKORIATZA
Miren Zubillaga
12an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Oier Aizpurua
12an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Aitziber Eraña
15ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Josu Agiriano
16ean. Zorionak eta muxu handi bat, Alaitzen eta Eñauten partetik.



ARETXABALETA
Iker Romero
18an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, ama pontekoaren partetik.



ARETXABALETA
Igor Romero
27an. Zorionak eta muxu handi bat, izebaren partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20


- * ESTUDIOAK
- * EZKONTZAK
- * JAUNARTZEAK
- * ENMARKAZIOAK
- * DIGITAL LANAK
- * KAMARAK

Beti karretean edo albuma dohanik !!




MIRVAT

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarteko kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



ATREBENTZIAEZPADA/ Errenta aitorpena dagoeneko egin dozu edo azkenengo orduen ibiltten zara?



MARIA JESUS FERNÁNDEZ
Langillie

JOSE ANTONIO ELEXPURU
Jubilaue

MANOLI GONZÁLEZ
Langillie

TXOMIN REMEDIOS
Langillie

NATI URIARTE
Langillie

IÑIGO KORTAZAR
Langillie

Egin, egin... joan zen astien ekarri nittuen papelak Kutxara eta eurak arduratu die egittiaz. Aurten lelen aldiz egingo dot, oiñ arte arte kanpuen bizi izen naz eta.

Ez, ondio ez dot egin. Jubilaueok gastu gutxi daukou eta pagetie tokau izen jat, hortarako azkenengo egunien egittie hobeto. Koiñatuek egin izen dust eta aurtent be harek egingo dust.

Papelak gertaketan ibili naz baiñe ondiokan ez dot egin. Kutxan egin izen dot oim artekuen, baiñe zeozetan Bergarara joan bihera dauketela esaten badustie joan egin biher hara be.

Ez, ondiokan ez. Autonomue naz eta kontuek asesorixa batek erueten dustenez eurak arduraketan die egittiaz. Papelak erueteko esaten dustienien eruen besteik ez dot egitten.

Bai egin dot, denporaz ibiltie gustetan jat eta aurtengue be dagoeneko Kutxan egin dustie. Gastu asko euki nittuen igez eta kobretie tokau jat, ez asko baiñe kobretie.

Ez, azkenengo egunetan egin izen dot pagau bihera badau be. Gestorixa batek egitten dust. Banketxien be egin izen dot baiñe batien zein bestien egin alde haundixe dauela uste dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOA ESPALOIAN, OINEZKOAK LORATEGIAN Sarri aipatu dugu autoak ez direla behar den lekuan aparkatzen eta hala xe erakusten du erretratu honek ere. Autoa espaloi gainean aparkatuta eta oinezkoak lorategitik pasatu behar. Aparkalekuaren arazoa gero eta handiagoa da, baina gure herrian ez dut uste espaloi gainean utzi beharrik dagoenik. /MIRARI ALTUBE

ETABARRUAN...

- | | | |
|--|---|--|
| <p>ASTEAN BEHIN /4</p> <p>Andramariko etxebizitzak</p> <p>Andramari auzuneko etxebizitzak zaharberritze lanak aurrera doaz. Lehenengo etxea bukatzeaz dago.</p> | <p>ASTEAN BEHIN /5</p> <p>Txistulari Taldea</p> <p>Hogei urtetik gora daramatza herriko Txistulari Taldeak lanean, herriko jaiak guztioi alaitzen.</p> | <p>KIROLAK /6</p> <p>Otala Zelaiko Krosa</p> <p>Richard Fernandez izan zen Otala Zelaiko Kroseko irabazlea. Aretxabaletar gutxik hartu zuten parte.</p> |
|--|---|--|

ASTEKODATUA

12

ARETXABALETARREK HARTU ZUTEN PARTE KROSEAN

Aurtengo Otala Zelaiko Krosean aretxabaletarren parte hartzea bultzatu gura zuten, baina hamaik baino ez zuten parte hartu. Denetara, 88 helduk eta 12 gaztek hartu zuten parte krosean.

BESTEKEKESANA

“Entzuleen aldetik, ez zen gure helburua jende askoko saioak egitea, eta beraz, ez da hain arrakastatsua izan. Jexux Arzallus eta biok atera izanak ez du esan nahi berriro txapelketetan hastera goazenik. Nire kasuan behintzat, aurtent parte hartu dut giro lasai batean jokatu delako, ez areto handi jendetsutan. Eta bestalde, ederra delako ikustea iparraldean gai garela denok elkartzeko. Zentzu horretan, garrantzitsua zen denok parte hartzea. Tira, oraindik ez dugu hurrengo urterako ezer zehatzik pentsatu. Baina aurtengoa hain ongi atera dela ikusita, ez dakit hurrengo urtekoa liga izango den edo beste izen eta formarik izango duen, baina behintzat denok parte hartzeko izan beharko luke.

AITOR SARASUA
‘Bertsozalea’ berripapera/02-04-19

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



Nik ere nahi dut lokal bat

Edozein elkarrizketatan gazteak eta aisialdia hitzak bata bestearren jarraian aipatzen direnean beti azaltzen den argumentua da gazteentzako lokala falta dela, dirudienez ez baitaukate non elkartu eta, antza, horrela ez daukate bizitzerik... Baina inork esaten ez duena da zein edadetako gazteentzako behar den lokal hori eta zertarako duten gazteek elkartzeko irrika hori.

Normala da gurasoek euren seme-alabak non, norekin edo zertan izango direnaren ardura izatea, baina seguru lokalik eza dela arazoa? Ez ote da izango herrian haurtzako aktibitateak falta direla? Esperientziari begiratu besterik ez dago lokala izan edo ez izatearen artean alde handirik ez dagoela ikusteko. Bestela azaldu diezadala norbaitek gazteek lokal bat izan duten guztietan zertan bukatu duen horrek: beste taberna batean.

Helburua gazteak egun guztia kalean gora eta behera

edo tabernetan sartuta ez egoitea baldin bada, irtenbidea ez da lokal bat gertatu eta neska-mutikoak begi bistatik kentzea. Horrekin kale gorrian edo taberna zuloetan egiten dutena besterik ez lukete egingo: ezer ez. Hori bai, ez genituzke ikusiko. Baina horrek ez du esan

gura arazoa ez dagoenik, ezta konponduta dagoenik ere.

Gazteek aisialdia modu egokian bete dezaten eta euren gurasoek ardura bat gutxiago izan dezaten norbaitek, ez azpiegitura bakarrik, esperientzia, gidaritza eta aktibitateen

programazio egoki bat jarri behar du. Norbait hori Udala izan behar da? Baliteke, baina biderik errazena da hori. Hobe litzateke Udalak, gurasoek, gazteek eta herrian kultura eta aisialdiaren inguruan dabil-tzan taldeek elkarlanean zerbait antolatuko balute. Hori bai proiektu polita... eta erronka handia.

Bestela, lokalak banatzen hastekotan nik ere nahi dut nirea.

“Esperientziari begiratu besterik ez dago lokala izan edo ez izatearen artean alde handirik ez dagoela ikusteko”



M. J. Aretxaga

Kanpokoan berriak

Poztu egiten naiz herri-ritik kanpo dauden aretxabaletarren berri izatean. Aurrekoan telebistan ikusi nuen herri-riko misiolari bat. Bertatik bertara saioan **Pedro Galdos** Venezuelako dagoen jesuita agertu zen. Antza denez, hemendik hara joandako batzuekin mendi tontor batera igo zuen, eta hango irudi labur batzuk bota zituzten. Pozik ikusi nuen hemendik joandako bisitariekin.

Oraintxe entzun dut beste aretxabaletar baten ahotsa irradian, **Alberto Inurrategirena**. Izugarriko elur piloa aurkitu dute Annapurnako bidean, eta horrek asko zaildu die gorantz igotzea. Ia ba, zorte hobea duten hemendik aurrera.

Eta besterik ez, gaurkoz. Ia aste bukaeran herri-riko taberna berria, **Orly**, bisitatzen dudana, nire adinekoentzat aproposa dela esan didate.

M. J. Aretxaga

Aurrera doaz Andramari auzuneko zaharberritze lanak

MIRARI ALTUBE

Urte berriarekin batera hasi ziren Andramari auzuneko etxeen aurrealdeak zaharberritzen. Lau hilabete pasatu eta gero, lehenengo etxea ia bukatuta dago eta bigarrenarekin ere aurrera doaz.

Andramari auzuneko lehenengo etxeak itxura polita hartu du; izan ere, zaharberritze lanak bukatzeko ukitu batzuk baino ez zaizkio falta, eta bizilagun gehienak pozik daude etxeak hartu duen itxura berriarekin.

ETXEEK LAN HANDIA

Gasteizko IDHECO enpresa eraikitzaileak dihardu Andramari auzuneko zaharberritze lanak egiten. Ohikoa den moduan, auzotarrek gura baino polikiago doaz lanak, baina lehenengo etxea ia

bukatuta dago eta bigarrenarekin ere aurrera doaz.

Berrogei urtetik gora dituzten etxeok lan handia emango diete langileei. Horma, behar izan den tokietan, zulatu egin dute, horma berria egiteko. Gero, material isolatzaileen bitartez ondo isolatzen ahalegindu dira; izan ere, hezetasunak arazo handia ematen zuen. Balkoi berriak jarri dituzte, eta bukatzeko, larumarroixka kolorea eman diote etxeari. Koloreak, hasiera baten, kezka ugari sortu zituen hainbat auzotarrengan, baina azken emaitza ikusi ostean, zalantza gehienak uxatuta geratu dira. Orain, arropak zintzilikatzeko traman-kulu berria da hizpide bizilagunen artean.

Hogei hilabeteen bukatzekoak ziren lanak luzatu egingo dira; edozelan ere, emaitzak merezi izango du, duda barik.



MIRARI ALTUBE

Aldamioak kendu ostean itxura dotorea izango du Andramariko lehen atarteak.

TXUTXUMUTXUA



Institutuan 25. urteurrenaren ospakizunak

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak 25 urte bete ditu aurten. Ospakizun ugari izan dituzte ikasturtean barrena, eta zapatuan eman zioten bukaera. Ekitaldi ofiziala egin ostean, Baster Alde jatetxean izan zuten bazkaria. Gaur egungo irakasleak eta irakasle ohiak batu ziren bazkarian, 90 bat lagun, gutzira, eta giro bikaina izan zen nagusi. Orain dela 25 urte Institutua abian jarri zenetik hantxe lanean ibili diren hiru lagun -bi irakasle eta idazkaria- ere omendu zituzten. /M.A.

LABUR

Kontu-hartzaile teknikari laguntzaile berria hartu du Udalak amatasun baja betetzeko

Maidar Amato Mendizabal da udaleko kontu-hartzaile teknikari laguntzaile berria. Oiartzunen bizi da eta momentuz Belauntzako udaletxean egiten du lan. Aste pare bat barru, ordea, gure udaletxean izango dugu Begoña Arenaza Bengoa kontu-hartzailearen alboa. Begoñak uztailean amatasun baja hartuko du eta Maidar izango da bere postuan urte bukaera arte.

Kontu-hartzaile teknikari laguntzaile posturako izena zazpi lagunek eman zuten, baina azterketara lau lagun baino ez ziren aurkeztu, horietatik bi aretxabaletarrak.

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Aretz

taberna


Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



Miren & Zuriñe

Bitxiturgia • Erlojudenda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrealdean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA



Jose Luis Alonso [fisioterapeuta]
10 urteko esperientzia
profesionalen eskuetan

Fitness:
Banakako fitness programak

Osasun zerbitzuak:
> Gimnasia terapeutikoak,
> Banakako tratamenduak
(fisioterapia, osteopatia estrukturala,
indukzio kraneo sakroa, askapen
miofaziala, elektroterapia orokorra
eta ultrasoinuak)

Hargi plaza 6 • Aretxabaleta / tel. 71 27 92



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero

Mobiliario
ARENAZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

MUSIKA/Txistuaren hotsaz disfrutatzeko mila modu daude, eta horixe bera erakutsi zuten domekako kontzertuan

Txistulari Taldeak, herriko jaiak girotu eta alaitzeaz gain, kontzertuak ere egiten ditu

MIRARI ALTUBE

Andramaixetan herritarrei 'egunon' esaten, Aratusteetan Txino dantzarekin, otsailean Santa Ageda Mutilekin plazan... Nork alaitzen eta girotzen ditu herriko jaiak? Txistulariak dira. Lana isilean egiten dute, beste batzuek jaiegunak ondo pasa ditzagun.

Txistu soinuak jai usaina ekarri ohi du. Giroa alaitzen du txistu soinuak, dantzarako gogoa piztu eta herriko kantuak abesten lagundu. Ez du trikitiaren bizitasunik, ezta txalapartaren hotsik ere, baina geure-geurea da.

DEMETRIO IRIARTE IRAKASLE

Demetrio Iriarte txistulari handiak gazte talde txiki bat pilatu eta txistua zelan jo irakasten hasi zitzaion. Tomas Otxoa, Pablo Otxoa, Antziñe Mendia... izan ziren lehenengo irakasleak. Hogei urtetik gora pasatu dira ordutik hona, baina geroztik beti izan ditugu txistulariak herrian. Alkar kultura taldeak lagundu zion garai hartan Txistulari Taldeari. Alkar desagertzerakoan ere ez zen Txistulari Taldea desagertu.



Zazpi-zortzi lagunek osatzen dute Txistulari Taldea, eta atzetik ere gehiago datoz.

Ez da talde handia izan, ezta ondo antolatutakoa ere, baina herriko jai guztietan ibili dira dantzariak, Santa Ageda Mutilei, Txino dan-

tza egiten dutenei eta gainerako guztioi lagun egiten. Orain dela urte batzuk, Jokin Antxia sartu zen taldean. Lan handia egin du

Jokin Antxiak, Txistulari Taldeak aurrera egin dezan eta herrian presentzia izan dezan.

LEIZARRA MUSIKA ESKOLAN

Jende asko ibili izan da Txistulari Taldeak; batzuk etorri eta beste batzuk joan. Leizarra Musika Eskola sortu zenean, bertan sartzea erabaki zuten. Txistu irakaslea dute Musika Eskolan. Horrek esan gura du atzetik ere txistulari gazteak datozela. "Ez dauka trikitiak besteko arrakastarik, baina atzean ere ez da geratzen", dio Leizarra Musika Eskolako zuzendari Mariatzek Urkiak.

Gaur egun, zazpi-zortzi lagunek osatzen dute Txistulari Taldea. Herriko jaiak alaitzeaz gain, kontzertuak ere egiten dituzte. Joan den domekan eman zuten azkena. Gainera, kontzertu berezia izan zen, atabalek, tronpetek eta dantzariak lagun egin zieten eta txistuei. Mila modu eta maneira daude txistuaren hotsaz disfrutatzeko; gehienak oraintxe ari gara ezagutzen, Jose Inazio Ansoñaren eta beste batzuen eskutik. Hala ere, ez dauka Ansoñaren Donostiatik etorri beharrik hori erakusteko, herrian txistulari bikainak ditugu-eta.

LABUR

Hamabost bat lagun dabilta Txalaparta ikastaroan

Loramendi Euskara Elkarteak Txalaparta ikastaroa antolatu du maiatzerako. Hamabost bat lagun hasi zen egunean txalaparta zelan jo ikasten. Oier Sarasua da Txalaparta ikastaroko irakaslea.

Erakusleho ikastaroa antolatu du Loramendi EEK

Loramendi EEK merkatariek Erakusleho ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 13an hasiko da eta 31n bukatu. Astean hiru egunean izango dira eskolak. Eskola guztiak eguerdian izango dira.

Astelehenean aurkeztuko dituzte aurrekontuak

Datorren astelehenean, hilaren 13an, aurkeztuko dituzte 2002ko aurrekontuak osoko bilkuran. Nahiz eta adostasun falta egon alderdien artean, onartzea espero dute.

Mitarte Garai baserri-turismo etxe berria



Orain sei gela bikoitz ditugu, telebista eta guzti, eta hiruk bainugela ere badute



Lasai-lasai egoteko taberna

Mitartegarai

Arantza auzoa
Aretxabaleta
Tel. 943 79 17 51
mitartegarai@euskalner.net

Batzarretarako gela ireki berria ere badaukagu!

FOTOKIROLA



Richard Fernández oñatiarra izan zen garaile Ojala Zelaiko Krosean

Domekan jokatu zen 24. Ojala Zelaiko Krosa. Eguraldia lagun izan zuten, baina aretxabaletar gutxi animatu zen parte hartzera eta kanpotarrak izan ziren nagusi. Mutileri dagokionez, Richard Fernández oñatiarra izan zen irabazlea, 40 minutu eta 59 segundorekin, baina ez zuen Kamel Zianiren errekorra gainditu. Bigarrena David González izan zen eta hirugarrena, Manu Hurtado. Aretxabaletar onena Andoni Miguel izan zen; Andonik 14. bukatu zuen lasterketa. Beteranoetan, berriz, Javier Mentxakari eman zioten lehenengo saria eta juniorretan, Aitor Delgadori. Emakumeei dagokionez, Rosi Talabera izan zen bai senior onena bai beterano onena; horrek arazoak eragin zituen, hainbat neska ez zeuden-eta ados bi sariak emakume berari ematearekin. /MIRARI ALTUBE

SQUASHA

Egubakoitzean hasiko da squash txapelketa Aretxabaletako kirol etxean

Egubakoitzean, maiatzak 10, hasiko da squash txapelketa Aretxabaletako kirol etxean. Hamahiru lagunek eman du izena parte hartzeko, gehienak arrasatearrak eta oñatiarrak, eta bi talde egin dira. Oraingoan aretxabaletarrik ez da animatu. Udal kirol zerbitzuetako arduradunak jarritako epeak betez gero ekainaren 22an jokatuko dira final erdia eta finala.

PILOTA

Egubakoitzean Herri Arteko Pilota Txapelketa hasiko dute aretxabaletarrek Azkoitian

Orain dela aste bi hasi zen Herri Arteko Pilota Txapelketa, baina aretxabaletarrek oraingo astean jokatu dituzte lehen partiduak. Azkoitiarren kontra jokatea tokatu zaie eta egubakoitzeko partiduak kanpoan izango dira. Datorren asteak, bueltakoak, berriz, Aretxabaletan jokatu dituzte. Aurkari gogorak izango dira Azkoitiko pilotariak; hortaz, gogoz ahalegindu beharko dira.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

UDA-Zarauz

Preferentea.

Zapatua. 16:30. Ibarra.

Urnieta-UDA

Bigarren mailako erregionala.

Zapatua. 17:15. Urnieta.

PILOTA

Herri Arteko Pilota Txapelketa

Aretxabaleta-Azkoitia

Egubakoitza. 22:00.

Azkoitia.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 2 Beti Ona 0

Preferentea.

Cruces 2 UDA 0

Gazteen Euskal Liga.

Sanpedrotarrak 1 UDA 2

Bigarren mailako erregionala.

Luberri 3 UDA 1

Bigarren mailako gazteak.

Intxurre 4 UDA 0

Lehenengo mailako kadeteak.

Amaiak bat 4 UDA 1

UDA 0 Martutene 3

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Urretxuko Pilota Txapelketa

Eskuz Banakako Txapelketa.

Oion 5 Arrastoa 22

Binakako Txapelketa.

Errasti anaiak 22

Errazkin/Zabala 8

Aitzorrotz elektronikak
Alboka gazte moda
Angelines autozerbitzua
Aretxabaleta iturgintza
Asensio jantzi denda
Begiondo optika
Errasti kioskoa
Errekabarren fruta denda
Ettxabe harategia
Farma bizi parafarmazia
Gemes edertze aretoa
Gertu janari prestatuak
Haurrak umeen moda
Herrasti akeita etxea
Ibarra estankoa
Iber loteria
Imanol janari denda
Iriarte umeen denda
Irudi ileapaindegia
Jauregi okindegia
Jon harategia
Josu harategia
L-10 ileapaindegia
Larrad ileapaindegia
Lasai masajeak
Leibar arraindegia
Leintz drogeria
Leniz liburudenda
Mari Karmen oinetakoak
Maritxu mertzeria
Martin erlojudenda
Miren Zuriñe bitxitegia
Nerian loradenda
Txilarra dietetika
Xume oihal denda
Zainduz osasuna/fitnessa
Zare artegintza
Zubia oinetakoak

UDABERRIKO ZOZKETA!
150 EUROKO SARI BAT ETA 60KO ZORTZI SARI!

Aretxartek bedetatzi erosketa-txartel zozketatuko ditu gurean erosketak egiten dituztenen artean.
Zozketa ekainaren 4an egingo dugu! Hartu parte!



ERRETRATUZAHARRA

San Isidro,
baserritarren
egun handia



Maiatzaren 15a baserritar guztien zaindariaren eguna da, San Isidro eguna. Gaur egun, ezer gutxi egiten dute herrian San Isidroren omenezko festa ospatzeko, baina garai baten, egun handia izaten zen.

Horren testigu alboko argazkia daukagu. 1995. urteko maiatzaren 15ean ateratakoda da. Orduan, San Isidro eguna jaiegun handia izaten zen; baserritarrendako, batik bat. Berdin zen San Isidro eguna domeka edo astelehena izan; baserritarrek, egun horretan, aitzurra eta animaliak albora utzi, eta jai hartzen zuten.

Goizean goiz, dotore jantzita, meza nagusira joaten ziren guztiak. Oraingo asteko

argazki zaharra herriko eliza nagusiko atar-tean ateratakoda da, hain justu ere.

Garai hartan, San Isidro eguna baserri bakoitzeko maiorazkoak bakarrik ospatzen zuten; kasu gehienetan, argazkiak erakusten duen moduan, gizonezkoa izaten ziren maiztarrak.

1995. urte inguruan, bederatzita auzotako baserritarrek batzen ziren; kontuan

hartu behar da 1966. urtera arte Bedoña auzoa oraindik ere Aretxabaletakoa zela.

Mezaren ondoren, bazkari eder batekin bukatzen zuten San Isidro eguna.

Argazki zahar horretan aurpegi batzuk ia ikusi ere ez dira egiten, baina beste batzuk ezagunak dira argazkia utzi digunarendako. Hona hemen erretratuko baserritar batzuen izenak: lehenengo

ilaran, besteak beste, Isidoro Arenaza, Timoteo Uribe-xebarria (Ardantzakoa), On Angel Garmendia (parrokoa), Andres Lizarralde, Jesus Elorza, Don Bonifacio Arenaza (Koruetako apaiza), Juan Mari (Galartzakoa), Txomin Lasagabaster eta Leandro Elizburu azaltzen dira. Atzeko aldeko taldean, berriz, Salustiano Errasti, Pablo Aia-stui, Eugenio Zubizarreta, Pablo

Eraña, Patxi Leibar, Marcos Garciaetxabe, Rufino Aguirino, Pedro Zubizarreta, Joakin Osinaga, Esteban Zuazua, Jose Mari Ugalde, Migel Leibar, Galo Iturbe, Andres Etxebarriarteun, Nikolas Eraña eta Leon Lasagabaster azaltzen dira, beste baserritar askoren artean.

Argazkia: Jesus Osinaga

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

J.J. IRURE
ITURBINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

Lie

**LURRINDEGIA
OPARI-DENDA**

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

Lezama
BIDEO KLUBA

Zure gustoko zinema!

Santa Kurtz 24
ARETXABALETA
943 79 33 95

ANDRA MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

IRIARTE

Umeen denda eta lentzeria

Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 11 / 79. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Batzuk Oskorrirekin abesten ibili ziren eta beste asko, botak jantzita, Atxorrotxen

AINTZANE GARDOKI

Asteburua ekintzez gainezka zetorren, baina eguraldi txarrak atzera bota zuen, esaterako, zapatuako EGASek antolatuta zuen akelarrea. Barikuan, jende ugari batu zen Oskorrirekin kantari ibiltzeko. Eta domekan, jende ugari batu zen Atxorrotx Egunean.

Ekitaldi eta ekintza ugari zegoen iragarrita herrian astebururako. Barikuan, 22:30ean, 300 bat lagun batu ziren kiroldegian, Oskorri taldearekin kantuan egiteko. Talde bizkaitarrak Pub Ibiltaria-ren seigarren ekitaldia ekarri zuen Eskoriatzara. "Giro polita egon zen. Jendeak gogotik abestu zuen. Kantu ezagunak ziren gehienak, eta hain ezagunak ez zirenak ere abesteko samurrak ziren. Ia bi orduz ibili ginen kantari", esan digu M.C. Arrietak, Euskara Zerbitzuko arduradunak.

ATXORROTX EGUNA

Hurrengo egunean, domekan, txistulariek kalejirarekin esnatu zituzten herritarrek 09:00etan. Ordu erdi geroago, Atxorrotxera joateko elkartu ziren mendizale gutxi batzuk, "jendeak nork bere aldetik joateko ohitura handiagoa dauka-eta", azaldu digu Maider Hercek, Ikastolaren izenean antolatze lanetan ibili zen kideetako batek. Ikastolako eta Atxorrotx elkarteko kideak goizean goizetik ibili ziren lanean: "Herritarrek gora heltzen zirenerako, taberna, karpa eta mahaiak jarri eta sua egiteko, goizean goizetik ibili ginen lanean", esan digu Maider Hercek.

Bezperako eguraldia kontuan hartuta, herri bazkaria Atxorrotxen egin beharrean herrian bertan egitea erabaki zuten barikuan antolatzaileek. "Baina domekan, nire ustez, jende asko batu zen. Fresko egiten bazuen ere, giro polita izan genuen Atxorrotxen. Zapatuan ez genuen horrelakorik imajinatu ere egingo", dio Maiderrek. Meza amaituta, herritar asko tabernara hurreratu ziren. Txistorra eta salda beroa, ardoa, garagardoa eta freskagarriak, aukeran. "Dena



Bizikletan, zaldian, motoetan... baina herritar gehienek oinez igo zuten Atxorrotxera

AINTZANE GARDOKI



Eguraldi freskoa izan bazen ere, jende asko batu zen Atxorrotxen

AINTZANE GARDOKI



Kontzertua prestatzeko entsegu gogorak izan dituzte euskaltegiko ikasle hauek.

AMAGOIA LASAGABAST

amaitu zitzaigun, txistor apur bat gelditu zen bakarrik, eraman ere asko eraman genuen-eta", argitu digu Hercek. Herri bazkarian, berriz, 50 lagun inguru batu

ziren, frontoian. Salda beroa, bildotsa eta gazta, besteak beste, jateko. Atxorrotxen moduan, bertolariak eta trikitilariak fin ibili ziren bazkalostean ere. Ilun-

tzean, berriz, frontoiko giro beroa udaletxeko aurreko aldera eraman zuten herritarrek. "Patatatortilla asko ekarri zituzten herritarrek. Pintxoak egin eta saltzea

zen helburua, eta guztiak saldu ziren", esan digu Maider Hercek. Antolatzaileek, pozik, balorazio oso ona egin dute aurtengo Atxorrotx egunaz.

Eguraldi txarrak eraginda, EGASek antolatutako akelarrea ezin izan zuten egin

"Atxorrotxen jende ugari batu zen, aurreko eguneko eguraldia kontuan hartuta"

"Atxorrotxen dena amaitu zitzaigun, txistor apur bat gelditu zen bakarrik"

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

SAN PEDRO JAIETARAKO ESALDI LEHIAKETA

Taldea, 13 urtetik gorako edozein herritarrek har dezake parte. Jaiak iragarriko dituzten esaldiak gutun-azal baten sartu beharko dira eta udaletxeko edo kultura etxeko eskapeetan jarriko dituzten postontzietan sartu, maiatzaren 25etik ekainaren 2ra. Informazio gehiagorako, jo Euskara Zerbitzura.

AMUSKAK BIDAIA ZARAGOZARA

Hilaren 18an eta 19an, bidaia egingo du Amuskak Zaragozara. Izena emateko aukera dago oraindik.

AXTROKIRENAGENDA

AUTOBUSA, HERRI URRATSERA


Debagnetarekin batera, herriko euskara elkarteak autobusa antolatu du Senperera, Herri Urratsara, joateko, Iparraldeko ikastolei laguntzeko. Animo!



NIKAZETARI/ Lore Díaz de Gereñuk egindako elkarrizketa

JOSEBA GABILONDO/EGAS-EKO KIDEA

“Gaztelekua herriko gazte guztiondako izango da”



Duela hilabete batzuk, Udalak lokal berria eman zien herriko gazteei. Geroztik, buru-belarri dabil lanean herriko EGAS taldea.

Noiz eta zelan sortu zen Eskoriatzako Gazte Asanblada?

Duela hiru bat urte. Aitzorrotz Eguneko bezperan, gazte batzuek akelarrea egitea pentsatu genuen. Gero, Koadrilen Arteko Olinpiada egitea ere erabaki genuen, eta

batzarrak egiten hasi ginen horretarako. Han sortu zen EGAS.

Egindako lanarekin gustura?

Orokorrean, egin ditugun ekintzekin gustura gaude, erantzun ona jaso dute-eta, baina ondo benetan Gazte Astearekin sentitzen gara: alde batetik, jende asko mugitzen delako lan egiteko; eta bestetik, jasotzen dugun erantzuna ere oso ona izaten delako. Berbaldiak, esate baterako, oso interesgarriak izaten dira. Izan ere, kezkatzen gaituzten gaiez berba egiteko aukera izaten dugu eta ideia berri asko ere sortzen zaizkigu.

Zenbat gaztek osatzen dute EGAS taldea?

Batzarretan 10-15 lagun batzen gara, eta gure asmoa da ahalik eta gazte gehienengana heltzea. Herriko gazteak batzen dituen gunea izan gura du EGASek, herriko edozein gazteri gaude-eta zabalik. Unibertsitatara datorren jendearekin harremanetan jarri gura dugu, gure berri eman, eta gure parte izan daitezen. Jende asko izanda, giro hobea egoten da eta lan egiteko erraztasun handiagoa izaten da. **Etorkizunerako dituzuen lehentasunak?** Bi lehentasun ditugu: bata, lokal berria egokitzea. Horretarako, koadrilen parte hartzea behar-beharrezkoa izango da; gazte guztiona da-eta lokala; eta bestea, lokalaren inguruan dinamika sortzea. Urteroko helburuetan, berriz, Udaberri Festa, Gazte Astea, akelarrea... kontzertu eta berbaldi gehiago, eta atera daitezken

hainbat ideia bultzatu gura ditugu.

Beste gazte talde batzuekin harremanik baduzue?

Gasteizko Gazte Asanbladak oso ondo lan egiten du, eta haiengandik zerbaitek ikastea espero dugu; eta ea Debagoieneko topagune bat antolatzen dugun.

Aurten oraindik ez duzue urteroko Gazte Astea antolatu; zer dela eta?

Musika Eskola bota zutenean, zinema zaharrera etorri ginen. Kontua da areto horretan konpontze lan handiak egin behar dituztela. Hasiera baten uste izan genuen maiatzarako amaituko genuela, baina ez da hala izan, eta horregatik ez dugu aurten Gazte Astea ospatu.

Eta noizko amaituko dituzte zinema zaharreko lanak?

Poliki gabilta. Gazte talde bat elkartzen gara jaiegunetan, baina lan asko dago egiteko. Orain arte, ezkerreko horma txukuntzen eta eszenatoki berria egiten ibili gara. Gure helburua San Pedroetarako lokala zabaltzea da, baina ikusi egin behar.

EGASek zein laguntza du horrelako lanak egiteko?

Udalak dirulaguntza ematen digu, baina guk herriko gazteen inplikazioa gura dugu. Eskoriatzako gazte askok pentsatzen dute lokala EGASekoendako bakkirik izango dela, baina oker dabilta. Gaztelekua gazte guztiondako izango da, eta aurrera ateratzeko denon laguntza izango da beharrezkoa.

LABUR

Eskoriatzako pilotariak agur esan diote Herri Arteko Pilota Txapelketari

Lehen aldiz hartu dute parte eskoriatzarrek Herri Arteko Pilota Txapelketan eta lehenengo kanporaketa pasatzerik ez dute izan. Aste bukaeran Zaldibian jokatu zituzten partiduetan ZaldibiaKO pilotarien kontra, eta ez dute emaitza onik lortu. Kadeetan, Zaldibia 22 eta Esko-

riatzak 8 egin zuten; gazteen mailan, Zaldibia 8 eta Eskoriatzak 22 eta seniorretan, berriz, Zaldibia 22 eta Eskoriatzak 7.

Beste hainbat txapelketatan ere parte hartu dute eskoriatzarrek azken asteetan. Abadiñon, esaterako, Axpe eta Esnaola kadeak garaile atera ziren.

Vicente Enekotegi kartzelaratu du Garzon epaileak, beste bederatz lagunekin batera


Maiatzaren 1ean, Eskoriatzako Batasunak kale bilkura egin zuen herrian, Vicente Enekotegiren eta berarekin batera atxilotutakoen askatasuna eskatzeko. 55 lagun batu ziren kale bilkuran. Enekotegiri ETako kide izatea leporatu dio, besteak beste, Garzon epaileak. Gazte eskoriatza-

rraren atxiloteta 18.98 sumarioaren barne kokatzen ei da, Eskoriatzako Batasunetik azaldu digutenez. Garzonek aginduta, Batasuneko lokalak eta kontuak ere blokeatzen hasi dira. Enekotegiren egoera eta izango diren gertakizunen berri emango duela esan du Batasunak.

FAGOR



Fagor Ederlan, S.Coop



MONDRAGON
AUTOMOCION

AUTOENDAKO OSAGAIAK

Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORIATZA • Tel.: 943 71 90 00



Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20



Gatzagar ugari Atxorrotxen

Ohiturari jarraituz, Gatzagatik ere jende ugari joan zen Atxorrotxera joan den domekan. Goizean goizetik batzuk, eta eguerdi aldera beste batzuk, motoetan eta auto handietan gutxi batzuk, zaldian banakaren bat, eta oinez gehienak... Atxorrotxera heldu ziren.

Atxorrotxeko giroarekin disfrutatu zuten guztiek. Gatzagako umeak Atxorrotxeko kobazuloan gora eta behera ibili ziren gustura. Garazi Orobengoak, aldiz, min hartu zuen orkatilan eta Arrasateko Ospitalera eraman behar izan zuten.

Bestalde, *Artabilla* base-rrian bazkari gozoarekin disfrutatzeko aukera izan zuen herriko koadrila batek, Atxorrotxetik bueltan. / A.G.

LABUR

Maiatzeko azkeneko asteburuan, herriko umeak eta gurasoak Getariara joango dira

Getariako Askixu auzoan asteburua igarotzeko irteera antolatu du GURELek, herriko gurasoendako eta umeendako.

GURELek aurreko urteetan Elantxoben dagoen aterpetxera egin du irteera, baina aurten, Getaria eta Zarautz inguruak ikusteko asmoz, Askixuko aterpetxera joango dira. Herriko umeendako eta haien guraso-

endako da asteburu-pasa hori, "eta, batez ere, umeen aitak animatu gura ditugu, amak animatu beharrik ez da egoten-eta", azaldu digute GURELekoek. Datorren astean, batzarra egingo dute, guztion artean asteburuan egitekoak zehazteko.

Getariara joan gura duten guztiek gaurtik aurrera eman dezakete izena, ludotekan.

Herriko emakume talde bat Burgosera abiatu da gaur, asteburua pasatzera

Sorginakek antolatzen duen urteroko bidaian inoiz baino emakume gutxiago joan dira aurten: "22 edo 23 ginen joatekoak, baina batzuk gauza bat, eta beste batzuk beste bat, 15 joango gara Burgosera, "esan digute Sorginak taldekoek. Arratsaldeko laurutan hartu dute autobusa. Burgosen, hiriburuan, bi egunerako hotela izango dute, eta zapatuan

eta domekan, Burgosko probintziako hainbat leku bisitatuko dituzte. Zapatuan, Silos eta Cobarrubias ikusiko dituzte, eta domekan, Tobalina ibarreko Frias, Medina de Pomar eta beste hainbat herri bisitatuko dituzte. Aurreko urtetan maiatzaren bateko zubia aprobetxatu dute bidaia egiteko, aurten, berriz, asteburu motzagoa izango dute.

Urrira bitartean, mezak Dorletan

Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, maiatzean hasi eta urrira bitartean, domeketako meza nagusia herriko San Millan parrokian esan beharrean Dorletako Santutegian esango dute. Meza nagusia domeketan izango da, 12:30ean. Joan den domekan hasita eta Domu Santu bezperara arte, Gatzagan meza entzun gura duenak Dorletan izango du aukera.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

**TOKI
ALAI
TABERNA**

**Karajiloetan
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

FAGOR



**ELEKTRATRESNA
TXIKIKO
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Amets taberna



Taberna eta kafetegia
Iparragirre 4. 943 79 01 29

JOSU

taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



ESKORIATZA

Tfno 714345



Bazkariak
eta
afariak

Mendiola auzoa
ESKORATZA
943 71 43 45
Astelehenetan
itxita

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

URBALTZ TABERNA



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
MANTEKA ANAIK
Araba Ibilbidea 20. Tel.: 943 79 88 95. Aretxabaleta

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Baster-Alde jatetxea



Sasoiko
jakiak giro
onenean

Galartza auzoa, Aretxabaleta
943 79 24 58

ARTANO akaitegia



Gosariak
goizeko
7:00etatik
aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

IZOTZ Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA




Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01



AZKENA taberna

Solohaundi 8 Aretxabaleta. 943 79 74 57

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71



Orain, Edurnen ELEKTROTHERAPIA

Tratamenduak analisi morfologikoekin
Diagnostikoa doan!

Hanketako astuntasuna

Zelulitisa

Estriak

Tonifikazioa

Psikoaromaterapia eta Dieta pertsonalizatuaren laguntzarekin



ESTETIKA ESPEZIALIZATUKO ZENTRUA

EDURNE

Aranburuzabala 42 ESKORIATZA 943 71 51 54

BESTE ZERBITZU BATZUK:

Strechng masajea • "Blend sistema" depilazio elektrikoa
Depilazioa argizari hotzarekin • Solariuma